

'Jai-Alai', zesta puntaren munduan girotutako thriller erromantikoa

Gaizka Arostegik Elkar argitaletxearekin kaleratu du euskaraz idatzi duen lehen eleberria

IÑAKI IZQUIERDO

DONOSTIA. Trabakuatik behera, 1976ko Cadillac Eldorado gorri ikusgarri bat dator. Ardiz betetako larre baten parean Guardia Zibilak errepide-kontrola jarri-ta dauka.

– Aparka ezazu hor.

Martin Larralde, Gaizka Arostegiren 'Jai-Alai' (Elkar) nobela berriaren protagonistak, kotxe liluragarria bazterrean gelditzen du. Txapelokerrak maletategia irekiarazi eta bertan xistera bat aurkitzen du.

– Zer da hau?

– Ez al duzu Zesta Punta eza-gutzen?

Halaxe abiatu du Portugaleteko idazleak bere azken lana. Xabier Mendiguren editoreak asteazken honetako aurkezpenean esan duenez 'Jai Alai' «euskaraz zesta puntari buruz idazten den lehen nobela da. Thriller erromantikoa». Bere liburu guztiak irudi batetik sortzen dituela azaldu du Arostegik, gero datorrela idazteko lana. Eta kasu honetan irudia kotxea izan zen.

Cadillac gorriak nobelaren «bi espazio tenporalak» josten ditu, idazle bizkaitarraren hitzetan. Alde batetik, XX. mendeko 60ko hamarkada Estatu Batuetan, «zesta puntaren gailurra, urrezko urteak», eta bestetik, 80ko hamarkada Euskal Herrian, «gain-behera».

Martin Larralde –Ruper Ordozikari omenaldi gisa aukeratu zuen Arostegik protagonistaren



Gaizka Arostegi bere azken liburuarekin, atzo Donostian.

JAI-ALAI
GAIZKA AROSTEGI

Estiloa: eleberria. Argitaletxea: Elkar.
Orr.: 208. Prezioa: 21,00 euro.

izena – etxera bueltatu da Ameriketara hainbat urte egin eta gero. Eta ihesi dator, noski. Nork bere buruarengandik ihes egi-tea zaila dela jakinda, baina ihe-si hala ere. Aspaldiko lagunak, amodioak eta arerioak agertuz joango dira, baita zesta munduak hain berezkoak dituen «grina, pasioa, borroka, dirua, sexua, arrakasta eta porrota» ere. Etsai berriak ere ez dira faltako.

Larralde puntista sonatua izan zen Miamin, baina bere distira itzalita dago orduz geroztik, uzurtuta nolabait, bere gorputza bezala. Autoreak pasioz hitz egin du zestari buruz, orain nolabait berpiztu den pilota modalitateaz. «Ez da edozein kirol. Kirol bat baino gehiago da». Eleberrian, urrezko aroa eta krisi sakona josteko pilotarien greba ospetsua erabiltzeko du hari gisa. Eta Cadillaca, metafora. 1988 eta 1991 urteen artean puntistek, euskaldunak gehienak, gelditzea erabaki zuten lan baldintza hobek eskatzeko. Ez zen konponbiderik topatu eta

Jai Alai industriaren gainbehera ekarri zuen horrek, AEBetan eta beste edonon. Orain gutxi, euskal erakundeek bultzatuta, zestak indarra hartu du berri-ro, Gernikako frontoiaren inguru-an batez ere.

Gaizka Arostegik thrillerra idatzi du eta generoaren osagarriak hor daude, misterioa, krimena, dirua, dena xisteraren munduan girotua. Obra zabala dauka Portugaleteko autoreak. Euskaraz, haur eta gazteentzako kontakizun ugari idatzi izan du, eta helduentzako hainbat eleberri, gaztelaniaz. 'Jai-Alai' da helduentzat euskaraz idatzi duen lehenbiziko nobela.

Umora programa una segunda sesión de 'Arde Venecia' tras el éxito de taquilla

DV

SAN SEBASTIÁN. 'Arde Venecia', el espectáculo ideado por Juan Dávila y Galder Varas, ofrecerá una segunda actuación el próximo 4 de marzo en el Festival Umora, tras agotar prácticamente las entradas del pase de las 21.00 horas. Esta segunda actuación tendrá lugar a las 18.30 horas del mismo día. El formato desarrollado por Dávila y Varas provoca que los invitados se atrevan a quitarse la máscara en directo, a través de preguntas incómodas, humor afilado y confesiones inesperadas hasta convertir cada entrevista en un striptease emocional. Umora 2026 será la primera ocasión en la que 'Arde Venecia' se represente fuera de Madrid. «Si te gusta ver cómo se derrumba la fachada, prepárate: en los nuevos capítulos, 'Arde Venecia' quema más que nunca», aseguran los creadores, que por primera vez ofrecen al público de todo el territorio la oportunidad de ver un formato único y rompedor.

Abierto el plazo para el jurado joven del Festival de Cine y Derechos Humanos

DV

SAN SEBASTIÁN. El plazo de inscripción para participar en el Jurado Joven del XXIII Festival de Cine y Derechos Humanos (DDHH) de San Sebastián está ya abierto. Según indicó ayer la organización, alrededor de un centenar de jóvenes de entre 18 y 30 años formarán el Jurado Joven, que otorgará el Premio al Mejor Cortometraje del vigésimo tercer Festival de Cine y Derechos Humanos de San Sebastián (23-30 abril).

Para formar parte del Jurado hay que inscribirse antes del 26 de marzo en la página web www.donostia.eus. Como otros años, formar parte del Jurado Joven da derecho a obtener créditos del Sistema Europeo de Transferencia y Acumulación (ECTS) al alumnado de la Universidad del País Vasco (EHU), de la Universidad de Deusto y del grado de Comunicación Audiovisual de Mondragon Unibertsitatea.

Euskal literaturaren memoria eta erronkak aztergai 'Mintza Lagun' zikloan

Irati Jimenezek eta Cira Crespok iragana eta egungo desfaioko landuko dituzte bihar, 19:00etan, Santa Teresa Komentuan

I. ELDUAYEN

DONOSTIA. 'Mintza Lagun' zikloak euskal literaturaren iraganari eta etorkizunari begiratzeko gonbita egingo du biharko saioan. Hitzordua 19:00etan izango da, Donostiako Santa Teresa Komentuko areto nagusian, Koldo Mitxelena-ren egungo egoitzan. 'Etorkizuna bezpera da. Euskal literaturari

buruzko hausnarketa bat' izen-buruean, Irati Jimenez idazle eta kazetariak eta Cira Crespo historialariak gure literatur sistemaren bilakaera eta gaur egungo tes-tuingurua aztertuko dituzte.

Antolatzaileek nabarmendu du-tenez, literaturak «gaur egun di-tuen zailtasunak gainditzeko eta etorkizunean izan ditzakeen erro-nei aurre egiteko, ezinbes-tekoa da iragana ulertzea». Ildo horretan, euskal letretako aurreko belaunaldien arrastoa eta ekar-pena izango dituzte hizpide ikus-pegik kritiko batetik, sistemaren indarguneak zein ahulguneak mahai gainean jarri.



Irati Jimenez



Cira Crespo

Bi hizlariak ibilbide sendoa dute haien arloan. Irati Jimenezek kazetaritzan eta literaturan jar-dun du urte luzez, eta hainbat ge-nero eta euskarritan landu du. Besteak beste, 'Bat, bi, Manches-ter' (2006), 'Nora ez dakizun hori' (2008) eta 'Begiak zabalduko

zaizkizue' (2021) lanak argitara-tu ditu. Cira Crespo, berriz, His-torian doktorea eta dibulgatza-i-lea da. Bere ikerketek euskal ema-kumeen historiari eta haien jar-dun literarioari arreta egin diote, bereziki 1936ko gerraren aurreko nazio berreraikuntzaren testui-nguruan.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuak susta-tutako 'Mintza Lagun' zikloaren hirugarren aldia da aurtengoa. Lagun liburu-dendaren balio sin-bolikoa abiapuntutzat, programa ideiak trukatzeko eta eztabaida sustatzeko gune gisa eratu da, aktualitateari buruzko hausnar-keta kritikoa proposatzen duten egileen arteko solasaldien bidez.

Hurrengo zita, otsailaren 18an izango da, Clara Ramos eta Isaac Rosaren eskutik. 'Nostalgia' ize-neko hitzaldian, melankolia per-sonalak aztertuko dituzte.